


Laru beilegi hori



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Txaleko Horien mugimendua, altxatu bezain laster, itzaltzera kondentzen zen. Hor dirau. Bazirudien ez zuela deus lortuko. Zerga soil baten kontra altxatzen zelako, agian? Ala ez zuelako sarien eta aberastasunen birbanaketa serioa planteatzen? Orain jada diskurtsoa jantziagoa da, anitzagoa, beste aldarri batzuei batua. Hala ere gutxiesten da, beste hainbat mugimendu alternatiboren gisan. Alta, usteak uste, iraultza anitzen abia molde bera dauka.

1979ko iraultza monarkiaren politika fiskal injustuak piztu zuen, jendetzaren gehiena sekulako zerga ordaintzera behartzen zela, nobleziak zergarik pagatzen ez zuelarik, orduko zor publikoaren ordaintzeko, burgesekiko zorra, monarkiaren mesedetan, jendetzaren beharra kontuan hartu gabe.

Urte berean Ligeeko iraultza gertatu zen garagardoaren zergarengatik eta arrazoi berengatik. Han ere noblezia eta burgesiak zituzten etekinak monopolizatzen, gizartearen kaltetan.

1905eko lehen iraultza errusiarra, zergen banaketa sumingarriarengatik agitu zen. Han ere zergen emendatzearen aitzakia zor publikoaren ordainketa zen. Langileriak aldarrikatu zuen zor horren ordainketa, sinpleki,

gelditu behar zela, honen absurdoa salatuz.

1989an Margaret Thatcherrek sortu zuen *poll-tax* famatuak populua altxatu zuen eta mobilizazioen ondorioz Thatcherren gainbehera gertatu zen.

Txaleko Horien mugimenduak nazka duela besterik ez du adierazten, okaztatua dela injustizia sozialaz, inposaketaz, miseriaz eta inkontzientzia ekologikoaz, bizi ezinaz. Bereztasuna du, lehen aipatu iraultzetan bezala, dinamika kolektiboa sortu dela, manifestaldietan ibiliz nahiz kexa kaierak betez. Txalekoen mugimenduan, sare sozialen bidez, sekulan harremanik ukan ez duen jendea kohesionatu da eta asteburuz asteburu biribilguneetan elkartu. Anitzek aitortzen dute ez zirela sekulan manifestaldi batera joan. Non egon ziren beraz? Segurki etxean, bakoitza miseria propioa bizitzen ahal zuen bezala, agian gorde nahian, duintasunez. Eta horra bat-batean ohartu dela ez dela bakarrik, talde bateko kide dela, hainbat jenderekin amankomunean dituela hainbat sufrimendu.

Txaleko Horien, ZADisten, erretirodunen, nahi denaren gutxiestea, (nork bere) historiatic gutxi ikastea litzateke, esperientzietatik ondoriorik ez atera-

tzea, bizi erreala baino gustatzen zaigun moldekoa ikustea. Ekimenak onak egingen zaizkigu, txarrak, koherenteak, deliranteak, deusetarakoak, berdin dio, jada ezin baitira gelditu. Bakarrik izatetik kolektibo gisa proiektatzera heldu da jendea. Iraun bekio, honela edo beste molde batez.

Bizkitartean arraroa dena da mugimendu eta alternatiba politikorik ez dadin eraiki astez aste irauten ari den mobilizazio eta debate horietatik, proposamen konkretuen inguruan, programa baten inguruan federatzeko. Baina gizarte likidoaren funtzionatzeko moldeetan nola gauza daitezke holakoak? Antolatzeko duen nekezia horretan, Madrileko M15eko mugimenduari buruz pentsarazi dezake (hura ere *perroflauta* batzar gisa kalifikaturik izan zena asteen eta inertzien poderioz).

Eta hortik, *Sentinelle* dispositiboa zabaldu zen iragan larunbatean, afera likidatzeko, ahal bada. 1968ko gertakarietan Charles De Gaullek ez zuen armada protesta egileen kontra igorri. Hainbeste inporta ote du bankuak erre daitezen, urte oroz milaka pertsona zuzenean edo zeharka miseriarengatik hiltzen direlarik? Erregetxoaren hauteskunde kanpaina herritarrak ordaintzen ari dira. ●